

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2410

765/2022 EBAZPENA, maiatzaren 13koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Fátima Mendoza Gutiérrez andrea izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESiko Barne Medikuntzako Zerbitzu Sanitarioko Buru, aldi baterako, lau urte luzagarri.

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentearen 2022ko otsailaren 15eko 215/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Barrualde-Galdakaoko ESiko Barne Medikuntzako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez. (2022ko martxoaren 14ko EHAA 52. zk. eta 2022ko martxoaren 19ko BOE 67. zk.)

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Fátima Mendoza Gutiérrez andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakao ESiko Barne Medikuntzako Zerbitzu Sanitarioko Buru.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28.artikuluaren hirugarren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Fátima Mendoza Gutiérrez andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESiko Barne Medikuntzako Zerbitzu Sanitarioko Buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluan hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2022/05/16.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztatik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Galdakao, 2022ko maiatzaren 13a.

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA.